

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Gasteizko Erdi Aroko Hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren 17. Xedapen-aldaketaren behin betiko onespena, UEPEL S-1 espazio libreen gauzatze-unitate publikoa doitzeko**

Hau erabaki zuen udalbatzak 2021eko urtarrilaren 26an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Gasteizko Erdi Aroko Hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren 17. Xedapen-aldaketaren behin betiko onespena, UEPEL S-1 espazio libreen gauzatze-unitate publikoa doitzeko.

#### Erabaki-proposamena

Ikusirik Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren testu bategina eta berorren 17. aldaketa —udalerriko Erdi Aroko hirigunean UEPEL S-1 espazio libreen gauzatze-unitate publikoa doitzeko—, Hirigintza Kudeaketako buruak 2020ko abuztuan landua, ohartarazpen hauek egiten dira:

Gasteizko udalbatzak 2006ko irailaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran eman zitzaion behin betiko onespena Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren berrikuspenari, eta, gerora, 2007ko otsailaren 26ko ALHAOn —24. zk.— argitaratu zen.

Planeamendua leku horretako errealitate fisikora moldatzea da Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren 17. aldaketaren helburua, eta, horretarako, UEPEL S1 arloko fitxa urbanistikoa aldatzea, eta aldaketa 4. planoan jasotzea —Plan Bereziaren zonifikazioa—. Hain zuzen ere, erabileren izendapenari dagokionez, doitze hauek egiten dira: 60.etik 96.era bitarteko patio ingelesek udal jabetzako eta komunitate bakoitzeko bizilagunen gozameneko izateari utziko diote, eta jabari publiko mugatuko espazio libre izatera igaroko, eta etxebizitzaren atzeko aldean ondoko zerrenda berdegune pribatuko zonatzat sailkatzen da, harresien oineko zerrenda bat bakarrik utziz espazio libre publiko gisa, haiek zaindu eta behatu ahal izateko ibilbide bat ahalbidetze aldera, sarrera-mugatuarekin.

Zonifikazioaren 4. plano eta UEPEL S-1en fitxa urbanistikoa aldatu dira, honela aldatu ere:

— Kendu egin da bertatik iparraldeko ekipamendu-eraikina, zein ez baita espazio librearen parte, eta neurketak berrikusi dira; hartara, 2.889,49 metrotik 2.865,21era igaro da azalera.

— “Kokalekua: S [189] etxadiaren erronda-pasabidea eta jabari publiko eta erabilera mugatuko espazio librea” zioen lekuan, honela esango du aurrerantzean: ‘Kokalekua: S [189] etxadiaren erronda-pasabidea eta espazio pribatua’.

— Batu egin dira, grafikoki, 2. eta 3. zonak, aurrerantzean 2. zona izango baita.

— Honela dioten lekuan: ‘1. Hedegile kaleko 60.etik 96.era bitarteko patio ingelesak, udal jabetzako eta komunitate bakoitzeko bizilagunen gozamenekoak’, honela esango du aurrerantzean: ‘1. Erronda-pasabidea, jabari publiko mugatuko espazioak’.

— Honela dioten lekuan: ‘2 eta 3. Jabari publiko eta erabilera mugatuko espazio libreak, erronda-pasabidean’, honela esango du aurrerantzean: ‘2. Espazio libre pribatua’.

– Doitu egin dira zonen arteko mugak.

Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren 17. aldaketaren oroitidazkian alderdi hauek jasotzen dira: xedea eta esparrua, ekimena, aurrekariak, haren egokiera eta beharrendaren justifikazioa, baita indarrean dagoen plangintza eta aldatutako ere. Gainera, hauek barne hartzen ditu:

– Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioari eragiten ez dioneko justifikazioa.

– Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren nahitaezko txostenaren beharra, arauzkoa baita txosten hori, Erdi Aroko hirigunea monumentu-multzo deklaratu dagoenez, abenduaren 23ko 312/1997 Dekretuaren bitartez.

– Hauek egiteko beharrik ez dagoela: ingurumen-ebaluazioa, eragin akustikoarena, iraunkortasun energetikoaren azterlana, telekomunikazioen araudiarekiko egokitzapenari buruzko txostena, Abiazio Zibilaren txostena, genero-eraginaren azterlana eta eragin soziolinguistikoarena.

Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko irailaren 4ko erabakiaren bitartez, Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren 17. xedapen-aldaketaren proiektua onetsi zen, eta hasierako onespina eman zitzaion aldaketari. Dosierra jendaurrean jarri zen, hogeiei egunerako, 2020ko urriaren 14ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean — 116 zk.— eta 2020ko irailaren 30eko El Correo Español —Arabako edizioa— eta Diario de Noticias de Álava egunkarietan iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten ziola uste zuen orok aztertzerik izan zezan, baita egokitzen zituen alegazioak edo oharra aurkezterik ere, eta horretarako ezarritako epean ez da batere alegaziorik aurkeztu.

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari jakinarazi zitzaion 2020ko irailaren 24an, bidezko txostena egin zezan, baina ez dio inongo eragozpenik jarri Erdi Aroko hiriguneko BIPBaren 17. aldaketari, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Euskal Kultur Ondarearen Zentroko Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren 2020ko urriaren 6ko txostenean jasota dagoenez.

2020ko azaroaren 20an, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzari helarazi zitzaion Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzak jakinarazpena jaso zutenetik hilabete igaro delarik, eta organo horrek horren inguruko txostenik egin ez duenez, aurrera egin daiteke jarduketekin.

Aztertu beharreko arau urbanistikoei dagokienez, Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean finkatua dago Erdi Aroko hiriguneko 1. BIPBari dagokion eremu-fitxa.

Abenduaren 23ko 312/1997 Dekretuaren bitartez, kultur ondasuntzat jo zen Gasteizko Erdi Aroko hirigunea, monumentu-multzoaren kategoriarekin, eta dagokion babes-erregimena finkatu zen.

Eusko Jaurlaritzaren Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketaren erregimen juridikoa, eta orobat zehazten du birgaitze-jarduketaren kontzeptua.

317/2002 Dekretuaren 10. artikuluan daude araututa birgaitze-plan bereziak, eta plan berezien motetako bat direla adierazten, lurzoruen erregimenaren eta hiri-antolamenduen arloan indarrean dagoen araudiaren ildotik, eta delako legean eta hori garatzen duten araudietan nahiz horiek ordeztzen dituzten arauetan xedatutakoari lotuak daudela, baita dekretuan bertan berriaz adierazitakoari ere.

Birgaitze-plan bereziak hiri-antolakuntzaren tresna xehatuak dira, birgaitze integratuko eremu bat deklaratzeko dosierra abiarazi den hiri-lurzoruko eremuetan plan orokorren edo arau subsidiarioen kalifikazio globalaren zehaztapenak garatzeko, eta, beren zehaztapenen artean,

aipaturako dekretuaren 10.1 artikuluan definitutako administrazioaren ekintza berezia osatzen duten neurriak planifikatzeko aukera emango dutenak jaso behar dituzte.

10. artikulua horretan adierazten denez, administrazioaren ekintza bereziak hiri-ehuna babes-  
tea, kontserbatzea, leheneratzea eta hobetzea dakarten birgaitze babestuko jarduketak hartzen  
ditu barne, baita perimetroan dagoen ondare urbanizatu eta eraikia balioestea eta egokiago  
erabiltzea ere, horrela, dagoen populazioa mantentzea, bizi-baldintzak hobetzea eta, bereziki,  
etxebizitzaren kalitatea hobetzea eta komunitatearen ekipamenduak eta aurreko helburuekin  
bateragarriak diren jarduera ekonomikoak indar daitezela lortzeko.

Birgaitze integraturako plan bereziak behin betiko onetsi aurretik Kultura Sailaren arauzko  
txostena eskatu beharra dago, dekretu beraren 12. artikuluan —plan bereziak taxutu, izapidetu  
eta onesteko prozedura arautzen delarik— xedatzen denez.

46/2020 Dekretuaren 32.4 artikuluan jasota dagoenez, kultura-arloko eskumena duen sai-  
laren txostena —kasu honetan, Euskal Kultura Ondarearen Zentroarena— loteslea izango da  
kultura-intereseko higiezinaren abiarazte-ebazpenetan edo behin betiko kalifikazio-ebazpenetan  
ezarritako babes-araubideari dagokionez, bai birgaitze-plan berezien kasuen, bai monumen-  
tu-multzoak babestu eta kontserbatzeko plan berezien kasuan. 6/2019 Legearen 47.3 artikuluan  
arautua dagoenez, Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen eskumena duen sailaren aldeko txos-  
tena izan beharko dute hirigintza-antolamenduko tresnek, kultura-ondasun higiezin babestuen  
babesa eta kontserbazioa bermatzeko.

46/2020 Dekretuaren 32.4 artikulua arabera, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza,  
Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzaren txostena ez da nahi-  
taezkoa. Beraz, hilabete igaro delarik organo horri txostena eskatu zitzaionetik, tramitearekin  
jarrai daiteke.

46/2020 Dekretuaren 32.1 eta 31. artikuluetan eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekaina-  
ren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen da plan berezien esparrua  
eta edukia, eta 95., 96. eta 97. artikuluetan arautzen plan partzial eta berezien tramitazioa eta  
onespena.

2/2006 Legearen IV. kapituluaren seigarren atalean arautzen dira planeamenduaren aldaketa  
eta berrikuspina, eta, zehazki, 104. artikuluan xedatutakoaren arabera, hirigintza-planen zehaz-  
tapenetan edozein aldaketa egiteko plan mota bera erabili beharko da, eta zehaztapen horiek  
onesteko jarraitutako prozedura bera.

Osoko bilkurari dagokio plangintza orokorrari hasierako onespina ematea, eta hirigintza-le-  
gedian aurreikusitako antolamendu-planen eta gainerako tresnen gaineko udal tramitazioaren  
bukaera onestea, gerora Tokiko Gobernu berritzeko neurri buruzko 57/2003 Legeak osatutako  
Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 123.1.i) artikulua ildotik.

Proposatzen den antolamendurekin bat etorritik, dosieraren parte diren hirigintzako agiriek  
haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen baitute, Toki Jaurbidearen Oinarri buruzko  
7/1985 Legearen 122.4.a) artikuluan —abenduaren 16ko Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurri  
buruzko 57/2003 Legeak gehitua— aitortzen dion aginpidea baliaturik, Lurralde Batzordeak  
erabaki hau aurkezten dio Udaltzari:

#### Erabakia




1. Behin betiko onestea Erdi Aroko hirigintzako Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren testu  
bategina eta berorren 17. aldaketa —UEPEL S-1 espazio libreen gauzatze-unitate publikoa  
doitzeko—, Hirigintza Kudeaketako buruak 2020ko abuztuan landua.


2. Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta lurraldean zabalkun-  
derik handiena duen egunkarietako batean argitaratzea, 46/2020 Dekretuaren 7.1 artikuluan  
eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. artikulua xedatu-  
takoarekin bat etorritik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Dosierreko dokumentazio teknikoa esteka honetan dago eskuragarri: [www.vitoria-gasteiz.org/peri1-17aldak](http://www.vitoria-gasteiz.org/peri1-17aldak).

## Aldaketak

VITORIA-GASTEIZKO UDALA		FITXA:		GAUZATZE-UNITATEAK	
<b>ERDI AROKO HIRIGUNEA ERABERRITZEKO PLAN BEREZI INTEGRATUA</b>					
 <p>Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala</p>	<b>HIRIGINTZAKO FITXA</b> <b>ESPAZIO LIBREAK</b>		<b>ESPAZIO LIBREEN</b> <b>GAUZATZE-UNITATE PUBLIKOA <b>UEPEL</b></b>		
	<b>BEHIN BETIKO ONESPENA</b>		<b>(UEPEL - S1)</b> <b>S [189]</b>		
<b>KOKALEKUA:</b> <b>S ETXADIAREN ERRONDA-PASABIDEA</b> <b>ETA ESPAZIO LIBRE PRIBATUA</b>					
					
<p>AZALERA: 2865,21 m<sup>2</sup></p> <p>FASEA: ETXEBIZITZARAKO ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA S.A. GAUZATZEN ARI DEN OBRA</p> <p>KUDEAKETA: DESJABETZEA</p> <p>ERAIKUNTZAKO ESKU-HARTZE MOTA: BERRITZEA</p> <p>1- ERRONDA-PASABIDEA. JABARI PUBLIKOKO ETA ERABILERA MURRIZTUKO ESPAZIO LIBREAK</p> <p>2- ESPAZIO LIBRE PRIBATUAK</p>					



Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 11n

Alkate-lehendakaria  
**GORKA URTARAN AGIRRE**